


Urtebetetze berezi bat



Esnatu naiz. Erdi lo nago oraindik, anestesiagatik. Ama eta medikua hitz egiten ari dira. Aste guztietan egiten didaten "azken" froga hori izan da. Hauek dira minbiziak pasatzen dituen bideak, beti berdin. Nire ama ez da beti eduki dudana ama hori, nabaritzen dut. Ahotsa ere aldatu zaio, ezkututzen saiatzen bada ere, ezinezkoa da, nabaritzen dut. Orain ez ditu atzazalak margotzen ezta bere estilismo polit horiek jartzen ere. Bere begiak goibel daude, hondoratuak.

Hemen orduak, egunak, asteak, hilabeteak berdinak dira. Telebistako saio guztiek berdinak dirudite. Goizean pasillotik igarotzen den karrito soinu berdinak esnatzen nau, goizero. Atea zabaltzen da, soinu berberagaz, eta aurpegi berberak, egun ona ematen dit. Mariaren aurpegia bada edo Ainhoarena, ala Isabelena bada ere, niretzako aurpegi berdinak dira.

Gustatuko litzaidake lehen neukan bizitza hori edukitzea, nire lagunekin eskolara joatea, eta Irati eta Mainerrekin barre horiek ateratzea.

- Helene, esnatu zara maitea, zelan zaude?
- Ama, ez kezkatu, ondo nago. Benetan berriz ere ilea aterako zait?

Txarren eramaten dudana gauza, nire ile argi hori, nola jausten ari zaidan xerloka, egunero pixka bat gehiago ikustea da.

- Helene, pitxin, esnatu!
- Aaa, aita kaixo. Ze ordu da? Jan dut?
- Maitia, badakizu ze egun den gaur? Zure urtebetetzea da!
- Aaa bale, badaukat 13 urte.
- Sorpresa bat ekarri dizut. - Portatila ateratzen duen bitartean.